

NAFARROAN D EREDUA ARNASBERRITZEN

BARNE AHULGUNEAK	KANPO MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Ditugun hizkuntza ereduen artean D murgiltze eredua da hizkuntza ikasteko eredurik eraginkorrena baina baliabide falta dugu horren aldeko diskurtso sendoa egiteko. • D ereduen irekierak sustatzeko eta ahalbidetzeko ez dago plan edo bide-lerro adosturik. • Beharrezko baliabiderik ez ikasle migranteak eta zaugarriak D eremuan integratzeko eta euskara beragana dezaten. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gobernuek duten eskuhartzea kurrikulumen diseinuan. Kanpo proben “ezpata”. Hezkuntza sistema gaztelaniaz diseinatuta dago. Kolonizazio orohartzaileago eta aldi berean sutilagoa. Globalizazio bortitza hizkuntza gutxituen kalterako (pantailak). • Euskararen zonifikazioa eta zenbait erakundek euskararen prestigioaren edo eta honen eskakizunaren kontra egiten duten kanpaina. • Euskarazko irakaskuntza atzerriko hizkuntzen mailan jartzea eta aukera libreko beste atzerriko hizkuntza batekin parekatzea. • Murgiltze eredua ez bermatuta D eredu gela bakunak beste eredu duten ikastetxeetan zabaltzen delako.
BARNE INDARGUNEAK	KANPO AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> • Militantziarako gaitasuna. Herrietan erroturik guraso eta ikastetxe sare solidarioak eta konprometituak euskarazko irakaskuntza zabaldu nahian. • Oinarrizko akordio zabala eta estrategia bateratuak eragile, desberdinen artean. Sareen arteko elkarlana baina baita ere erakunde arduradunekin hizkuntza politika eraginkorrak garatzeko eta benetako hizkuntz normalizaziorantz arraun egiteko. • Tokiko beharrei erantzunen dion ikastetxea(k), hezkuntza komunitatea eta tokiko administrazioaren arteko aliantza eta elkarlana sustatzeko aukera. • Materialgintza propioa tokiko testuinguruak eta erreferente euskaldun gaurkotuta biltzen duena. Euskal Curriculuma jaso eta garatzeko oinarria. Ikasle euskaldun aktiboak eta konprometituak irteera profila adosteko eta ebaluatzeko aukera. Euskararen ardazturiko eleaniztasunaren aldeko hautuak eta emaitza onak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Menderakuntza ezberdinen kontrako borroken inbrikazioek euskarari esparru berriak zabaltzea. (interseksionalitatea). • Artea, sorkuntza, aukera ludiko berriak eta teknologia digitalen izaera librezalea euskararentzako aukera berriak. • Hizkuntza eskubideekiko aitortza eta sustapena akordio instituzionaletan jasotzeko aukera. • Nazioarte mailan Nafarroan euskarazko irakaskuntzak dituen mugak eta oztopoak ezagutaraztea eta lantzea.